

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak Sustapen Ministerioari 30 milioi ordaintzeko eskatu dio Prestazio Handiko Trenari dagozkion egikaritutako obragatik

Ayerdi lehendakariordea eta Pastor ministroa Madrilen bildu dira gaur goizean kopuru hori ordaindu ez izanari irtenbide bat bilatzeko asmoz

Lunes, 11 de enero de 2016

Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi Sustapeneko jarduneko ministro Ana Pastorrekin bildu da astelehen honetan; bilkura horretan, Nafarroako Gobernuaren desadostasuna helarazi dio Gobernu Zentralak 30 milioi euro ordaindu ez dituelako 2014ko abenduaren 31 baino lehen Prestazio Handiko Trenari dagozkion egikaritutako obregatik. Bi aldeek adostu dute obren [hitzarmen arauemaile](#)aren jarraipen-batzordea ahalik eta lasterren bildu dadila.



Ayerdi lehendakariordea, Herri Lanetako zuzendari nagusi Nacho Nagoreekin batera, Ana Pastor ministroarekin izandako bileran.

Hitzarmen horrekin bat etorritz eta jakina denez, Nafarroak azpiegitura horren obrak aurreratzen ditu eta interesen kostua bere gain hartzen; Estatuak, berriz, inbertsioa itzultzen du. Finantzaketa-sistema horren arabera, Gobernu Zentralak Nafarroako Gobernuari 30 milioi euro ordaindu behar zizkion 2015eko ekitaldian, 2014ko abenduaren 31 baino lehen egikaritutako obrei dagokien kopurua.

Nafarroak aurreratutako 71 milioi euroatik eta duela ia urtebete bi aldeek ziurtatutakoa, Foru Administrazioak orain arte 35,65 milioi baino ez du kobratu.

Txosten juridiko batean, Estatuak bere burua defendatzen du esanez ez dagokiola ordaintzea "hitzarmenean aurreikusita zegoen moduan, Castejón-Arrizabalaga bide-zati guztiaren obrak ez direlako epearen barnean egikaritu, hau da, 2015eko amaierarako", Ayerdik azaldu duenez.

Nolanahi ere, Foru Gobernuak Pastor ministroari beste txosten juridiko batzuk helarazi dizkio, eta azken horietan esaten da kobrantza egiteko baldintzak betetzen direla; izan ere, hitzarmenean ez da jasotzen azpiegitura amaituta egotea beharrezko baldintza denik.

"Espero ez genuen egoera batekin topo egin dugu, seguru geundelako 2015. urte amaieran 30 milioi horiek jasoko genituela", aipatu du Ayerdi lehendakariordeak Madrilen gaur egindako bileraren amaieran. Lehendakariordeak hitzarmenaren jarraipen-batzordea urtarrilean bilduko dela espero du.